



FAQ

- 1.- Zer behar da enpresa bat sortzeko?**
- 2.- Zeintzuk dira sustatzailearen ezaugarriak?**
- 3.- Non sortzen dira ideiak?**
- 4.- Enpresa baten arrakastaren gakoak zeintzuk dira?**
- 5.- Zeintzuk dira enpresa jarduera berri bat sortzean aurkitzen diren eragozpen nagusiak?**
- 6.- Zer da eta zertarako balio du enpresa-planak**
- 7.- Nola aukeratu enpresaren forma juridikoa?**
- 8.- Enpresa batek zein diru-laguntza izan dezake bere sorreran?**

1.- Zer behar da enpresa bat sortzeko?

Enpresa jarduera bat merkatuan sostengatu eta honek arrakasta izan dezan, nahi izatearekin ez da nahikoa, egiten jakin behar da eta aurrera egin dezan baliabide egokiak izan behar dira.

Negozio bat hasteko oinarritzko hiru gauza ondorengoak dira:

- Ideia bideragarri bat.
- Sustatzailearen perfil egokia.
- Enpresa plana.

2.- Zeintzuk dira sustatzailearen ezaugarriak?

Sustatzaileak bere burua azertu behar du enpresari gisa, hau da, ezagutza, gaitasun eta jarrera nahikorik baduen jakin behar du, bere kabuz lan egiteko.

Sustatzailea definitzen duten zenbait ezaugarri eta jarrera ondorengoak dira:

- Ideiarekin bat datozen formazio eta esperientzia.
- Motibazioa.
- Ondo hausnartuta eta kontrolpean izanda, arriskuak hartzeko gaitasuna.
- Ideia komunikatu eta saltzeko gaitasuna.

3.- Non sortzen dira ideiak?

Enpresa sortu aurretik behar den lehenengo gauza negozio ideia bat izatea da. Ideia-iturri batzuek hauek izan daitezke: jasotako formazioa, garatutako esperientzia, norberaren zaletasunak, inguru familiarra, behaketa, merkatuan antzemandako beharrak, indarrean dauden prozesuen hobekuntza...

Edozein kasutan, ideia zehaztu, garatu eta bere **bideragarritasuna aztertu behar** da.

4.- Enpresa baten arrakastaren gakoak zeintzuk dira?

Enpresa berri baten arrakastaren eragileak zein izan daitezkeen ezagutzea funtsezko baldintza da, bai jarduera berri bat hasi duen sustatzailearentzat eta ideia aztertzen ari den pertsonarentzat, ere bai. Gure iritziz, gakoak hauek izan daitezke:

- Ase gabe dagoen eskaera bat.
- Beharrezko diren baliabide eta gaitasunen jabe izatea (ekoizpen taldea, lehengaiak, giza-baliabideak, baliabide finantzarioak).
- Enpresaren baliabide eta gaitasunekin bat datorren enpresa-estrategia bat.
- Zuzendaritza eta gaitasun estrategikoa duen sustatzailea.



5.- Zeintzuk dira enpresa jarduera berri bat sortzean aurkitzen diren eragozpen nagusiak?

Sortzen diren enpresen portzentaia handi batek porrot egin ohi du lehenengo hiru urteetan (erdiak, gutxi gorabehera). Parean jartzen zaizkien **zailtasun nagusiak** ondorengoak dira:

- Baliabide ekonomikoen eta entitate finantzarioei emateko berme falta
- Sustatzailearen formazio falta. Gehienetan, ezagutza teknikoak izan arren, kudeaketa eta planifikazioan sumatzen da gabezia hau.

6.- Zer da eta zertarako balio du enpresa-planak

Enpresa plana ezinbesteko tresna da enpresaren sorrerarako prozesuaren planifikazio eta garapenari begira. Enpresa sortzera doan sustatzaileak egin beharreko azterketa eta sintesiaren emaitza da, eta hurrengoak eskaintzen dizkio:

- Proiektuaren ikuspegi orokorra eta zehatza izatea.
- Helburu batzuek ezartzea.
- Hauek lortzeko estrategiak definitzea.

7.- Nola aukeratu enpresaren forma juridikoa?

Enpresa martxan jartzerakoan eman beharreko pausu bat, forma juridikoaren hautaketa da. Horretarako zenbait faktore hartu behar dira kontutan, hala nola:

- Garatuko den jarduera mota.
- Enpresa proiektuan parte hartuko duten pertsona kopurua.
- Sustatzaileen ardurak.
- Bazkideek elkarrekiko duten harreman mota.
- Proiektuaren behar ekonomikoak.
- Enpresaren alderdi fiskala.

8.- Enpresa batek zein diru-laguntza izan dezake bere sorreran?

Enpresa martxan jartzeko momentuan, honek jaso ditzakeen diru-laguntzak faktore ezberdinen arabera izango dira:

- Egingo den jarduera mota.
- Enpresaren forma juridikoa.
- Sustatzaileen adina.
- Sustatzaileak langabezia egoeran egotea.
- Sustatzaileek langabezian daramaten denbora.
- Egingo diren inbertsio mota eta hauen zenbatekoak.
- Inbertsio hauen finantziario iturriak.